

**BILERA MOTA:** AUZOTAKO BILERA ELIZALDE

**ZENBATGARREN SAIOA : 1**

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-12	19:32	20:50

**BILDUTAKOAK:**

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Enekoitz Markos, Juan Inazio Ansa, Eneritz Arbelaitz, Iñaki Pikabea

Kopurua: 13

16-30 urte: 3	Emakumeak: 3	Euskaraz
30-50 urte: 2	Gizonezkoak: 10	
>50 urte: 8		

**AKTALARIA:** Eneritz Arbelaitz

	GAIA	ERABAKIA
1	Aurkezpena	Taldearen aurkezpena egin da eta bileraren egitura azaldu da.
2	Aurrekontuak 2016	Jexuxek aurrekontuen zirriborroa aurkeztu du. Sarrerak eta gastuak azaldu ondoren, zorraren eboluzioa erakusten duen grafikoa azaldu da.
3	2015eko lanak	2015ean argiterian inbertsioa egitea erabaki zen. Aztertu da Kontzejupe plazatik Kiroldegira doan bidea argizatzea eta hori bideratuko da. Bestalde, bidegainako espaloia berrituko da eta argiztatu.
4	2016ko inbertsioak	Lau urteko ikuspegia azaldu da. Aurreko urteetako ekarpenetatik Udalak ekarri dituen proposamenak: argiteria, elorrondo kalea herriondotik kooperatibara bitarteko errepidea konpondu, rafael pikabeako kirolgunea konpondu, pintaketa lan orokorra.  Herritarren ekarpenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriondotik kooperatibara doan errepidea peatonal izateko egin omen zen. Gero zabaldu egin zen. Aipatu du batek berriro itxi behar litzatekeela agian.</li> <li>- Rafael pikabea 1-7 bitarteko errepidean oinezkoentzako ez dago tokirik. Aparkaturik dauden kotxeen artean ibili behar da. Hobeto antolatzea eskatu du bizilagun batek: oinezkoentzako tokia egin, edo aparkatzeko</li> </ul>

		<p>tokiak kendu, peatonal bihurtu?</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal Herria plazako lurzorua arriskutsua da. Gainera istripuak ere gertatu dira.</li><li>- Aialde kaleko loseta ere irristakorra da eta arriskutsua.</li><li>- Manuel Lekuonako kalea: peatonal jarri zen baina trafikoa pasatzean lurzorua losetak hausten dira. Agian asfaltatu egin beharko litzateke? Urte batean inbertsio potolo bat egin beharko dela aipatu du Jexuxek.</li><li>- Plazako losetak ere gaizki.</li></ul> <p>Aipatu du bizilagun batek <i>hormigon impreso</i> motako lurra jarri beharko litzatekeela manuel lekuonako ibilbidean.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Okindegitik Muxuruko rotondara mantenu lana egin beharra dagoela aipatu du batek: bankoak txukundu, lurra garbitu...</li><li>- Puntu beltz bat dago kiroldegi aurrekaldean kurban, non kotxeak aparkatuak daudenean bi ibilgailu batera ez diren pasatzen. Aipatu du batek hor pibote batzuk jarriak egon izan direla.</li><li>- Ikastolatik Sastiberri bitarte gunea arriskutsua dago.</li><li>- Bizilagun batek aipatu du Elorrondo kaleko etxe adosatuetan kotxeekin arazoa dute, espaloian aparkatzen dutelako jende askok. Gainera, garajetik irteterakoan zuhaitz bat dago, non kiroldegitik heldu dena ez dute ikusten. Kolpeak eta sustoak egon izan dira. Abiadura mugatzeko ere zerbait jarri beharko litzateke. Horrez gain, haur asko ibiltzen dira hor.</li><li>- Arraskuelarre kalea: kotxeak bi norabidetan daude, gaizki aparkatuak... Kaos bat dela dio batek. Elbarrien plazan ere aparkatzen omen dute. Norabide bakarrean jartzeak asko arinduko lukeela uste du. Eskaera egina omen dago seinalea kentzeko.</li></ul> <p>Zoriondu du herritar batek Arizmendin garbiketa egin delako. Iñakik gaineratu du panpano batzuk Ibargaingoak kendu egingo direla, mantenua ezin delako egin.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Plazako gereziondoa moztu delako galdera egin du batek. Lehen zuhaitzak zeuden eta polita ikusten zen.</li><li>- Aldapa goikoatik bidegorrira doan bidea oso gaizki dago. Iluna eta lurra gaizki.</li><li>- Ibargaingo parkea: biziberritu egin behar da. Txakurren kakatokia bihurtu da. Bidea ere gaizki dago. Udaletxe atzeko lurmutur txikian ere berdina gertatzen da. Usaina egoten da.</li><li>- Parkeen antolaketa: Rafael pikabea etorbideko</li></ul>
--	--	---

		<p>muroa jaitsiz gero kaleak handitasuna irabaziko luke. Gainera badirudi parke pribatua dela. Arizmendiko parkearen muroa ere jaitea planteatzen du. Beste batek aipatu du muro batzuk katalogatuak badaude, ezin direla bota. Parke guztiak integratu beharko liratekela dio. Beste batek dio Ibargaingo parkeko muroa ere jaitsiz gero, kiroldegira doan bidea ez litzatekeela horren iluna geratuko.</p> <p>Galdetu du herritar batek Arizmendirekin eta Urkabe baitarekin bai ote dagoen asmorik. Jexuxek aipatu du oraingoz mantenu lanean gauzak egin behar direla: gazte izanaken obra egin, madalensoron daudenak ere bertara mugitu... Baina beste bi eraikin zahar horiekin ez da pentsatzen ezer egitea lehendik ditugun eraikinak txukun jarri arte.</p> <p>Lehentasuna: arriskutsu dauden guneei soluzioa ematea: EHplaza</p> <p>OIARTZUNEN INGURUKO EKARPENA:</p> <p>- Bidegorria: kiroldegiak adina balio du osasunarentzat. Erabilera handia du, haurretatik zaharretaraino. Baloratu egin behar dugu eta mantendu. Zenbat gastatzen den aztertu beharko genuke. Jexuxek adierazi du bidegorria txukuntzeko dagoeneko partida bat badugula eta arrisku guneetan hesia jarriko dela, beste batzuetan hesi gabe uztea aztertu... Zuhaitzen identifikazio kartelak berreskuratzea posible litzatekeen galdetu du batek. Zinegotzi ohi batek adierazi du oso garestia dela. Aurreko legealdian panel handi batzuetan numerazio batekin identifikatzea pentsatu zutela adierazi du.</p>
5	Mantenu lanak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Papelerak falta dira: EHplazako aparkalekutik atera eta ez dakizu nora bota. Elorrondo kale osoan ez dago ezta ere. Kiroldegi parean ez dago. Beste batek aipatu du hasieran jarri ziren borobilak segituan betetzen direla. Beste batek gehitu du papelera gehiegi ere ez direla jarri behar.</li> <li>- Txara parkea oso zikina egoten da. Zerbait egin behar da. Jendeak komun bezela erabiltzen du. Tunel inguruan komuna jarri beharko litzateke agian?</li> <li>- Mendiburu kalean lehen pago bat zegoen, gero bi jarri ziren eta haundiak daude. Laster adarrak etxeko leihora iritsiko dira.</li> <li>- Landetxan magnolio eta pago bat daude eta haundiak daude. Iñakik aipatu du magnolioa moztu beharra dagoela. Motzondoak egin beharko dira pagoekin.</li> <li>- Zuhaitzekin aipatu da mantenua egin behar dela,</li> </ul>

		zuhaitzak oso handiak eta arazo larria sortu aurretik.
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

Lehentasanak:

- Euskal Herria plazako aparkalekua herri bezela soluzionatu.
- Arriskuguneetan arazoak konpontzen hasi.

Balorazioa	
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,55
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,55
Bileran erabili den metodologia	8,18
Herritarren asistentzia	4,55
Herritarren partehartzea	7,55
Saioa probetxugarria izan al da?	8,20
Egunaren egokitasuna	8,36
Orduaren egokitasuna	8,27
Lekuaren egokitasuna	9,09
Denera batatz beste	7,92

Komunikazio bideak	kop	%
Bandoa/kartelak	5	17
Irratia eta prentsa	7	23
Sare sozialak	5	17
Ahoz-ahoz	7	23
Udal aldizkaria	5	17
Web orria	1	3,3